

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2020 000002491

Espediente-zenbakia: 2020/IDA_DEK0948**Xedea**

SARSCoV-2k eragindako infekzioen ugaltzeari usteko, 2020ko urriaren 27tik aurrera, ostalaritza establezimenduetan jarraitu beharreko osasun eta segurtasun neurriak onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua eman eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzeko.

Bigarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zan.

Hirugarrena: 2020ko ekainaren 9an, COVID-19ak sortutako osasun krisia aurre egiteko prebentzio, euspen eta koordinazio premiazko neurriak ezartzeko 21/2020 Errege Dekretu-Legea onartu zan.

Laugarrena: 2020ko ekainaren 18ko Lehendakariaren 14/2020 Dekretuz, deseskaladarako 3. Fasea gaitzuztat eta, horrenbestez, alarma-egoeraren esparruan hartutako neurriak indargabetu eta "normaltasun berria" hastea onartu zan.

Bosgarrena: 2020ko ekainaren 18an, Osasun sailburuak, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gaitzuztu eta gero, beharrezko prebentzio-neurriak buruzko Agindua eman eban.

Seigarrena: 2020ko uztailaren 28an, Osasun sailburuak, 2020ko ekainaren 18an emondako Aginduaren eranskina aldatzen dauen Agindua eman eban.

Zazpigarrena: 2020ko abuztuaren 14an, Segurtasun sailburuak, COVID-19 dalakoaren hedapenaren ondoriozko osasun-alertak eragindako egoera dela eta, Euskadiko Babes Zibileko Plana, Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi izeneko plana, formalki aktibatuzko Agindua eman eban.

Zortzigarrena: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, 2020ko abuztuaren 15ean 17/2020 Dekretua eman

**Sinadurea eta data**

eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak beregatzeko.

Bederatzigarrena: 2020ko abuztuaren 19an, Osasun sailburuak, 2020ko ekainaren 18an emondako Aginduaren eranskina aldatzen dauen Agindua emon eban.

Hamargarrena: 2020ko urriaren 22an, Osasun sailburuak Euskal Autonomia Erkidegoan, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoaren bilakaera dela eta, osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzeko Agindua emon eban.

Hamaikagarrena: SARSCoV-2k eragindako infekzioen ugaltzeari usteko, 2020ko urriaren 25eko 926/2020 ED bidez, Alarma Egoera aldarrikatu zan.

Hamabigarrena: Alarma Egoeraren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARSCoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko, 2020ko urriaren 26an, Lehendakariak, Osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzeko 36/2020 Dekretua emon eban.

Argudioak

Lehenengoa: 36/2020 Dekretuak honakoa xedatzen dau:

Eranskinetako 1. artikuluan: "Kautela- eta babes-betebeharrak.

COVID-19aren goranzko joera itzularazteko eta horren eragina ahalik eta gehien gutxitzeko, herritarrek ezinbestez parte hartu behar dute.

Horretarako, herritar guztiak beharrezko neurriak hartu beharko dituzte COVID-19aren gaixotasuna hedatzeko arriskurik ez sortzeko, bai eta norberak arrisku horiekiko duen esposizioa saihesteko ere. Kautela- eta babes-betebehar hori edozein jardueraren titularrei eskatuko zaie. Era berean, osasun-agintariek COVID-19aren prebentziorako ezarritako segurtasun- eta higiene-neurriak errespetatu beharko dira.

Maskarak erabiltzeko derrigortasuna.

Pertsonen arteko tartea edozein dela ere, nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea, bai bide publikoan eta aire zabaleko espazioetan, bai erabilera publikoko gune itxietan edo jendearentzat irekita dauden lekuetan, eta espazio berean beste pertsona batzuekin elkartu daitekeenean. Salbuespen izango dira agindu honetan aurreikusitako kasuak, bai eta COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrien ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan aurreikusitako kasuak ere.

(...) Desgaitasuna, mendekotasuna, gaixotasuna edo arnasa hartzeko zailtasuna dela-eta aipatutako 21/2020 Errege Lege Dekretuan oinarrituta maskara erabiltzetik salbuetsita dauden pertsonen kasuan, gorabehera hori dokumentatu ahal izango dute, behar den moduan, desgaitasun- edo mendetasun-maila egiaztatzen duen dokumentu baten bidez, edo mediku-ziurtagiri baten bidez, zeinaren ordezkari ahal izango baita eraginpeko pertsonaren edo haren tutorearen erantzukizunpeko adierazpen bat. Hori ez da eragozpen izango erantzukizunak eskatzeko, adierazpenaren zehaztasunik ezagatik.



Bizikideak ez diren pertsonen kasuan, espazio pribatu irekietan zein itxietan egindako bileretan edo sortutako taldeetan maskara erabiltzea gomendagarria izango da, pertsonen arteko segurtasun-distantziari eutsita ere.

Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuetan, maskara erabiltzeko betebeharrak hori jateko edo edateko unean bakarrik kentzen da. Bestela, erabili egin beharko da.

(...)

Pertsona-taldeek gehienez ere sei lagunekoak izan beharko dute, eta pertsonen arteko tartea errespetatu beharko dute beti.

Derrigor maskara behar bezala erabili behar da, sudur-trenkadaren zati batetik kokotseraino (barne) estaliz.

Erabili beharreko maskara motak ez du arnasa egiteko balbularik izan beharko, salbu eta maskara mota hori gomendatuta dagoen erabilera profesionaletan.

Establezimendu, espazio edo lokalen titularrek bermatu beharko dute beren espazioetan bete egiten dela betebeharrak hori.

Jarduera guztietan eskatuko diren higiene- eta prebentzio-neurriak.

Oro har, ezartzen diren berariazko arau edo protokoloak kalterik egin gabe, higiene- eta prebentzio-neurri hauek aplikatuko zaizkie establezimendu, negozio-lokal, erabilera publikoko instalazio eta espazio eta jarduerak publiko guztiei.

Jarduera ekonomikoaren titularrak edo, hala badagokio, zentro, instalazio, erabilera publikoko espazio eta erakunde zuzendariak edo arduradunak ziurtatu beharko du garbiketa- eta desinfekzio-neurri egokiak hartzen direla dekretu honetan aipatzen diren establezimendu, lokal, instalazio edo espazioen ezaugarrietarako eta erabilera-intentsitaterako.

Txartelarekin edo gailuen arteko kontaktu fisikorik eragiten ez duten beste bitarteko batzuekin ordaintzea sustatuko da, bai eta horretarako behar diren ekipoak garbitzea eta desinfektatzea ere.

Ezin izango da erre bide publikoan edo aire zabaleko espazioetan, ezin bazaio pertsonen arteko 2 metroko gutxieneko distantziari eutsi. Tabakoa arnasteko beste edozein dispositiboren erabilera ere aplikatuko zaio muga hori, hala nola zigarreta elektronikoei, lurrungailuei, ur-pipei, pipei edo antzekoei.”.

Eranskinen 9. artikuluan: “Ostalaritzako lokalak eta zerbitzuak, jatetxeak, txokoak eta elkarte gastronomikoak.

9.1.– Barruan baimendutako gehieneko edukieraren % 50eko edukiera baimentzen da, eta mahaien eta, hala badagokio, mahai-multzoen arteko 1,5 metroko distantzia fisikoa ziurtatu beharko da, barruan zein kanpoan. 1,5 metroko distantzia hori mahaietatik gertuen dauden pertsonen artean neurtuko da. Mahai bakoitzeko edo mahai-multzo bakoitzeko gehieneko taldea 6 pertsonakoa izango da, barruan zein kanpoan.

9.2.– Kontsumoa mahaietan eserita egingo da beti. Barran kontsumitzea debekatuta dago. Bezeroen edo bezero-taldearen artean 1,5 metroko distantzia fisikoa mantendu beharko da beti, eta denbora guztian eserita egon beharko dute. Koktelak eta buffetak egin daitezke, gehienez ere 6 laguneko taldeetan.

9.3.– Maskara nahitaez erabili beharko da une oro, kontsumitzeko berariazko unean izan ezik.



9.4.– Ikuskizunei eta jolas-jardueri buruz indarrean dauden osasun-jarraibideekin bat etorritik, egungo egoerak eta dekretu honen indarraldiak irauten duten bitartean, ez da ordutegiak luzatzeko baimen berririk emango jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren euskal erregelamenduen 37. artikulua babesean, eta eman direnak ondorioz gabe utziko dira.

9.5.– Ostalaritza eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuek, terrazek barne, 23:00ak baino lehen itxi beharko dute, barne hartuko da bezeroak ateratzea, 23:00etan zirkulazioa mugatu baino nahikoa lehenago. Lokala itxita egon beharko da jendearentzat eta ezin izango da berriro ireki 06:00ak baino lehen. Neurri horiek asteko egun guztietan aplikatuko dira, jaiegunak barne.

(...)

9.7.– Debekatuta dago txokoetan, elkarte gastronomikoetan eta lonjetan edozer jarduera mota egitea, eta itxita egon beharko dute”.

Eta eranskinaren 24. artikuluan: “Diskotekak eta gaueko aisialdiko gainerako establezimenduak. Establezimendu hauen itxiera deklaritzen da: Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan III. eta IV. taldeetan sailkatutakoak, salbu eta beren jardura I. eta II. taldeetarako indarrean dagoen araudiaren arabera garatzen badute eta dagokion udal-baimena badute”.

Bigarrena: Erabagia hartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Entitateen Erregimenaren oinarriak onartzen dauzan 7/1985 Legearen 21.1.m) artikulua arabera, alkateari jagoko, beti be Osoko Bilkureari erabagi horren barri emonda egiten dan lehenengoko batzarrean.

Erabagia

Hori guztia dala eta, honakoa erabagi dot:

LEHENENGOA: Alarma Egoeraren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko, 2020ko urriaren 27tik, kontrako agindurik emoten ez dan bitartean, ostalaritza establezimenduetan jarraitu beharreko osasun eta segurtasun neurri honek onartzea:

- Taberna barruko aforoa %50era murrizten da.
- Ezingo da zutik kontsumitu, ez taberna barruan ez kanpoaldean be. Mahaietan jesarrita kontsumitu beharko da derrigor, eta jesarrita dagozan pertsona taldeen arteko gitxieneko distantzia (1,5 m.) bermatu beharko da.
- Mahaien edo mahai multzoen gehieneko okupazioa 6 pertsonakoa izango da.
- Ahoa estaltzeko maskalira erabili beharko da, jan eta edateko une konkretuan izan ezik.
- Barran jesarrita kontsumitzea debekatuta dago.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E4000524D70008P4V5H9N8G4

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 27/10/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/10/2020
15:47:54

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0948
Data: 29/07/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



- Koktel edo buffetak antolatzekotan, 6 parte hartzaileentzat izango dira gehienez, jesarrita izango da, eta pertsona multzoen arteko gitxieneko distantzia bermatu beharko da (1,5 m).
- Debekatuta dago erretzea, gailua edozein dala be, 2 metroko distantzia bermatu ezin bada.
- Establezimendu guztiek 23:00etan zarratu beharko dabe beranduen jota. Ordu horretarako bezeroak kanporatuta eta guztiz zarratuta egon behar dira.
- Establezimenduak ezingo dira 06:00ak baino arinago zabaldu.
- Txokoen erabilera debekatuta dago eta zarratuta egongo dira.
- Diskoteka eta gaueko aisialdiko erabilera debekatuta dago eta, ondorioz, ezingo dira III eta IV kategorietako jarduera bereziak garatu. Hori horrela, III eta IV kategorietako lokalek, II kategoriako jarduerak burutu ahal izango dabez, aurreko ataletan zehaztutako muga eta ordutegiekaz bat.
- Edozein kasutan Osasun Ministerioak eta Osasun sailak emondako gomendioak eta aginduak errespetatu beharko dira.

BIGARRENA: Erabagi hau ostalaritzako establezimendu guztieri jakinaroztea.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, ATB sailari, Turismo Sailari eta Udaltzaingoiari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Erabagia Bermeoko Udalaren web gunean argitaratzea.

BOSGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkurean Dekretuaren barri emotea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E4000524D700O8P4V5H9N8G4

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 27/10/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/10/2020
15:47:54

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0948
Data: 29/07/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

